



CFF

Foru Zerga Kodea

AURKIBIDEA

1. APLIKAZIOAREN DESKRIBAPENA	1
2. LURRALDEKA, ARAUDI KONPARATUA BILATZEA ETA BISTARATZEA:	2
2.1. <i>Iragazkia eta bilaketa</i>	2
2.2. <i>Araudia bistaratzea</i>	6
3. XEDAPEN ARAUTZAILEEN AURKIBIDEAREN BILAKETA ETA BISTARATZEA:	9
3.1. <i>Iragazkia eta bilaketa</i>	9
3.2. <i>Xedapen arautzaileen aurkibidearen taula</i>	10

1. APLIKAZIOAREN DESKRIBAPENA

Aurkeztu den aplikazio informatikoarekin hiru lurralde historikoetako zerga-araudi eguneratura sar daiteke, eta, hala, errazagoa da hautazko kontsultak eta bilaketak egitea, hiru lurraldeak elkarreraginean eta integratuta badaude.

2. Lurraldeka, araudi konparatua bilatzea eta bistaratzea:

2.1. Iragazkia eta bilaketa

Besterik adierazi ezean, egungo urtea hautatuko da.

Bilaketa egiteko zerga hautatzea da lehenengo urratsa. Zerga hautatu ondoren, kargatu egingo da. Bilaketa-indizea sortzen ari dela adieraziko duen pantaila bistaratuko da. Gutxi gora behera, berrogei segundo arte iraun ditzake prozesuak, nabigatzailearen, konexioaren eta zergaren arabera. Indizea sortzen denean, pantaila honen antzekoa ikusi ahalko duzu:

The screenshot shows a web application interface for searching tax codes. The main search area is titled 'Bilaketa-datuak:' and includes a dropdown for 'Urtea:' set to '2017' and a dropdown for 'Zerga:' set to 'PFEZ Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga'. Below these are several filter sections: 'Sartzea:' with checkboxes for 'Arauk' (checked), 'Dekretuak', and 'Aginduak eta beste Arauk'; 'Lurralde historikoak:' with checkboxes for 'Bizkaia', 'Gipuzkoa', and 'Araba'; and 'Bistaratzeko lurraldeen arauak:' with checkboxes for 'Bizkaia', 'Gipuzkoa', 'Araba', and 'Konparatzailea'. There is a search input field with 'Testua bilatzea IRPF' and radio buttons for 'eta' and 'edo'. A 'Bilatu' button and a 'Garbitu' button are at the bottom right of the search area. The right side of the page features the 'Foru Zerga Kodea' logo and the text 'EUSKADIKO ZERGA-KOORDINAZIO-ORGANO' and 'ÓRGANO DE COORDINACIÓN TRIBUTARIA DE EUSKADI'. Below the logo are navigation links: 'Ohar metodologikoa', 'Helburuak', and 'Laguntza'.


Bilaketa-iragazkian datuak sartzeko unea da. Aukera hauek dauzkazu:

- **Sartzea:** Bilaketa egiteko xedapenak markatuko dira. Besterik adierazi ezean, arau nagusia egongo da markatuta.
- **Lurralde historikoak:** Bilaketa zein lurralde historikotan egin nahi den adieraz daiteke. Lurraldea aukeratzera koan, berez, lurralde horren bistaratzea markatzen da.

- **Bistaratzeko lurraldeen arauak:** Testuen bistaratzean zein lurralde historiko erakutsiko den/diren adieraziko da.

- ("**eta**" "**edo**"): Bilatzeko hitz bat edo hainbat hitz sar daitezke. "eta" aukeratzen bada, hitza/hitzak dituzten artikulua bilatuko dira. Bilatu nahi ditugun hitzen artean '%' karakterra sartuz gero, hitz horiek jasotzen dituzten artikulua aurkituko ditu, nahiz eta hitzok bananduta egon. "edo" aukeratzen bada, iragazkian sartutako hitzetako bat duten artikulua bilatuko dira. Testua sartzen ez bada, arauaren artikulua guztiak erakutsiko dira.

- **Bilatu aurreratu aurkibidean:** Klik egitean, arauaren aurkibidea zabalduko da. Puntu bat edo hainbat puntu hauta daitezke, bilaketa egiteko markatzaileak erabilita. Markatutako puntu horiek kontuan hartuko dira aurreko atalean sartu duzun testua bilatzeko. Artikulu bakarra hautatzen bada, zuzenean bistaratuko da artikulua, "bilatu" botoiari ematean. Gainera, aurkibidearen barruan, testuaren arabera bila daiteke. "Aurkibidean bilatu..." eremuan testua sartzean, modu automatikoan egingo da.



- **Bistaratzeko lurraldean arauak:** Arauaren testu osoa bistaratu daiteke aukera honen bidez. Informazioa duen leiho bat irekiko da. Arau osoa inprimatzeko aukera emango da. Arau osoan bilatzeko, klikatu, mesedez, bi tekla hauek batera: "ctrl+f". Koadro bat agertuko zaizu: hantxe sartu bilatu nahi duzun testua.

Bilaketarako parametro guztiak hautatu ondoren, "Bilatu" botoia klikatu beharko da. Bilaketa egiten ari dela adieraziko duen pantaila bistaratuko da. Amaitzen duenean, aurkitutako emaitza-kopurua eta hitza/hitzak daukaten/dauzkaten artikulua agertuko dira pantailan.

Bilaketa-datuak: [Hasiera](#)

Urtea: 2017 (2017(e)ko Ekainaren 15(e)ra indarrean dauden testuak)

Lurralde historikoak: Bizkaia Gipuzkoa Araba

Testua: *artikuluaren xedatzen* Ezabatzea

Indizeko iragazkia: *I. TITULUA. I. T...* Ezabatzea

Aurkitu dira **2** bat datozen datuak.

Bilatu **Garbitu**

Bilatu aurreratu aurkibidean **Bilatu arau osoa**

I. TITULUA.
ZERGAREN IZAERA ETA APLIKAZIO EREMUA.

2. ARTIKULUA. APLIKAZIO-EREMU SUBJEKTIBOA.

Foru Zerga Kodea

EUSKADIKO ZERGA-KOORDINAZIO-ORGANOA

ÓRGANO DE COORDINACIÓN TRIBUTARIA DE EUSKADI

Ohar metodologikoa Helburuak Laguntza

Bizkaia Gipuzkoa Araba

Iragazkiaren atalean, bilaketa egiteko sartu dituzun datuak eta topatutako bat-egiteen kopurua agertuko dira. Emaizten atalean, bilaketarekin bat egin duten artikulua erakutsiko dira. Artikuluaren izenburuan klikatzean, bistaratu egingo da, bilaketa-iragazkiko "Araudiaren banakako bistaratzea" puntuan hautatu denaren arabera. Besterik adierazi ez bada, araudi konparatua bakarrik bistaratu da.

2.2. Araudia bistaratzea

Bistaratzearen barruan, bilaketarekin bat egiten duen testua markatuko da.

Bilaketa-datuak: [Hasiera](#)

Urtea: 2017 (2017(e)ko Ekainaren 15(e)ra indarrean dauden testuak)

Lurralde historikoak: Bizkaia Gipuzkoa Araba

Testua: artikuluan xedatzen Ezabatzea

Indizeko iragazkia: I. TITULUA. I. T... Ezabatzea

Itzultzea

Aurkitu dira: 2 bat datozen datuak.

[Bilatu](#) [Garbitu](#)

Foru Zerga Kodea

EUSKADIKO ZERGA-KOORDINAZIO-ORGANOA

ÓRGANO DE COORDINACIÓN TRIBUTARIA DE EUSKADI

[Ohar metodologikoa](#) [Helburuak](#) [Laguntza](#)

Bizkaia Gipuzkoa Araba

Bizkaia

13/2013 FORU ARAUA, PFEZ

I. TITULUA.
ZERGAREN IZAERA ETA APLIKAZIO EREMUA.

2. ARTIKULUA. APLIKAZIO-EREMU SUBJEKTIBOA.

Foru arau honetan xedatutakoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren honako zergapeko hauei aplikatuko zaie:

1. Zergadun gisa:

a) Hurrengo **artikuluan xedatzen** denaren arabera, beren ohiko egoitza Bizkaian duten pertsona fisikoei.
Familia-unitatea osatzen duten kideek ohiko egoitza lurralde ezberdinetan dutenean, eta batera tributatzeko asmoa dutenean, foru arau honetako 97. **artikuluan xedatzen** denarekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiari tributatuko diote, baldin eta familia-unitate horretan likidazio-oinarri handiena duen kideak ohiko bizilekua lurralde honetan badu. Likidazio-oinarri handiena kalkulatzeko, berez dagokien arautegia aplikatuko zaie Bizkaiko egoiliar ez diren zergadunei.


b) Foru arau honetako 4. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan ezarritakoaren arabera ohiko egoitza atzerrian duten pertsona fisikoei, artikuluko horretan jasotako eran.


2. Konturako ordainketak egitera behartutako gisa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergagatik atxikipean eta konturako sarrerak egitera behartuta daudenei, baldin eta konturako ordainketa horien zenbatekoak Bizkaiko Foru Aldundian ordaindu behar badira Ekonomia Ituneko 7.etik 11.era arteko artikuluetan xedatutakoarekin bat etorri.


Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, atxikipean eta konturako sarrerak administrazio-kontseiluetako, haien ordeko batzordeetako eta beste ordezkari-organotako administratzaile eta kideek jasotako ordainsarien gainean egiten direnean, etekinak edozein motatako entitateen funts propioetan parte hartzeagatik lortzen direnean, eta, orobat, interesak eta gainerako kontraprestazioak obligazioetatik eta antzeko tituluetatik datozenean, foru arau honetan xedatutakoa aplikatuko da, baldin eta entitate ordaintzaileari Sozietateen gaineko Zergaren Bizkaiko araudia aplikagarri bazaio.


Bistaratze-pantailaren barruan kontuan hartu behar diren ezaugarriak:


1 *Kurtsorea gainean jartzean, informazio-testua agertuko da; normalean, arauaren, dekretuaren, aginduaren eta abarren definizio osoa.*


 *Kurtsorea ikonoaren gainetik igarotzean, leiho bat zabalduko da horren gainean. Bertan, bistaritzen ari den testuari dagokion egilearen oharra edo iruzkina agertuko da.*


 *Gainean klikatzean, artikulua agindua, dekretua edo araua zabalduko da dagokion lurralde historikoaren bistaratze-pantailaren koadroan.*

 *Ikonoaren gainean klikatzean, artikulua agindua, dekretua edo araua ezkutatu egingo da dagokion lurralde historikoaren bistaratze-pantailaren koadroan.*

 *Gainean klikatzean, dagokion dekretua zabalduko da ikusgarri ditugun lurralde historikoen koadroetan edota testu konparatuan.*

 *Gainean klikatzean, dagokion dekretua ezkutatu egingo da ikusgarri ditugun lurralde historikoen koadroetan edota testu konparatuan.*

 *Ikonoaren gainean klikatzean, Leiho berri bat irekiko da. Bertan, dagokion testua gordetzeko jarraibideak eta aukerak azalduko dira.*

 *Ikonoaren gainean klikatzean, leiho berri bat irekiko da. Bertan, hautatu den artikulua testua erakutsiko da, gero inprimatu ahalko den formatuarekin.*

"Itzuli" botoia: Bilaketaren emaitzen pantailara itzuli.


Bilaketa egin aurretik lurralde historiko bat edo batzuk hautatzen badira "Araudiaren banakako bistaratzea" puntuan, hautatutako lurraldeen testu banakatuak agertuko dira bistaratze-pantailan, bai eta konparatua ere, hautatu baldin bada. Adibidea ikus dezakezu pantaila-argazki honetan:

Comparada		
I. TITULUA. I. TITULUA I. TITULUA		
ZERGAREN IZAERA ETA APLIKAZIO EREMUA. ZERGAREN IZAERA ETA APLIKAZIO EREMUA ZERGAREN IZAERA ETA APLIKAZIO EREMUA		
<p>2. ARTIKULUA. APLIKAZIO-EREMU SUBJEKTIBOA. 2. ARTIKULUA. APLIKAZIO SUBJEKTIBOKO EREMUA. 2. ARTIKULUA. APLIKAZIO EREMU SUBJEKTIBOA.</p> <p>Foru arau honetan xedatutakoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren honako zergapeko hauei aplikatuko zaie:</p> <p>1. Zergadun gisa:</p> <p>a) Hurrengo artikuluari xedatzen denaren arabera, beren ohiko egoitza Bizkaian duten pertsona fisikoei.</p> <p>Familia-unitatea osatzen duten kideek ohiko egoitza lurralde ezberdinetan dutenean, eta batera tributatzeko asmoa dutenean, foru arau honetako 97. artikuluari xedatzen denarekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiari tributatu diote, baldin eta familia-unitate horretan likidazio-oinarri handiena duen kideak ohiko bizilekua lurralde honetan badu.</p> <p>Likidazio-oinarri handiena kalkulatzeko, berez dagokien arautegia aplikatuko zaie Bizkaiko egoiliar ez diren zergadunei.</p> <p>b) Foru arau honetako 4. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan ezarritakoaren arabera ohiko egoitza atzerrian duten pertsona fisikoei, artikuluko horretan jasotako eran.</p> <p>2. Konturako ordaintekak egitera behartutako gisa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergagatik atxikipenak eta konturako sarrerak egitera behartuta daudenei, baldin eta konturako ordaintekak horien zenbatekoak Bizkaiko Foru Aldundian ordaindu behar badira Ekonomia Ituneko 7.etik 11.era arteko artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.</p> <p>Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, atxikipenak eta konturako sarrerak administrazio-kontseiluetako, haien ordeko batzordeetako eta beste ordekaritza-organismoetako administratzaile eta kideek jasotako ordainsarien gainean egiten direnean, etekinak edozein motatako entitateen funts propioetan parte hartzeagatik lortzen direnean, eta, orobat, interesak eta gainerako kontraprestazioak obligazioetatik eta antzeko tituluetatik datozenean, foru arau honetan xedatutakoa aplikatuko da, baldin eta entitate ordaintzaileari Sozietateen gaineko Zergaren Bizkaiko araudia aplikagarri bazaio.</p> <p>Foru arau honetan xedatutakoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondoko zergapekoei aplikatuko zaie:</p> <p>1. Zergadun gisa:</p> <p>a) Hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera ohiko bizilekua Gipuzkoan duten pertsona fisikoei.</p> <p>Familia unitateko zergadunek ohiko bizilekua lurralde desberdinetan eduki eta batera tributatzea aukeratzen badute foru arau honetako 96. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Gipuzkoako Foru Aldundian tributatu dute oinarri likidagarririk handieneko kidearen ohiko bizilekua Gipuzkoan dagoenean.</p>		
<p>Bizkaia</p> <p>13/2013 FORU ARAU, PFEZ</p> <p>I. TITULUA. ZERGAREN IZAERA ETA APLIKAZIO EREMUA.</p> <p>2. ARTIKULUA. APLIKAZIO-EREMU SUBJEKTIBOA.</p> <p>Foru arau honetan xedatutakoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren honako zergapeko hauei aplikatuko zaie:</p> <p>1. Zergadun gisa:</p> <p>a) Hurrengo artikuluari xedatzen denaren arabera, beren ohiko egoitza Bizkaian duten pertsona fisikoei.</p> <p>Familia-unitatea osatzen duten kideek ohiko egoitza lurralde ezberdinetan dutenean, eta batera tributatzeko asmoa dutenean, foru arau honetako 97. artikuluari xedatzen denarekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiari tributatu diote, baldin eta familia-unitate horretan likidazio-oinarri handiena duen kideak ohiko bizilekua lurralde honetan badu.</p> <p>Likidazio-oinarri handiena kalkulatzeko, berez dagokien arautegia aplikatuko zaie Bizkaiko egoiliar ez diren zergadunei.</p>	<p>Gipuzkoa</p> <p>3/2014 FORU ARAU, PFEZ</p> <p>I. TITULUA ZERGAREN IZAERA ETA APLIKAZIO EREMUA</p> <p>2. ARTIKULUA. APLIKAZIO SUBJEKTIBOKO EREMUA.</p> <p>Foru arau honetan xedatutakoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondoko zergapekoei aplikatuko zaie:</p> <p>1. Zergadun gisa:</p> <p>a) Hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera ohiko bizilekua Gipuzkoan duten pertsona fisikoei.</p> <p>Familia unitateko zergadunek ohiko bizilekua lurralde desberdinetan eduki eta batera tributatzea aukeratzen badute foru arau honetako 96. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Gipuzkoako Foru Aldundian tributatu dute oinarri likidagarririk handieneko kidearen ohiko bizilekua Gipuzkoan dagoenean.</p> <p>Oinarri likidagarririk handiena kalkulatzearan ondorioetarako, bizilekua Gipuzkoan ez duten</p>	<p>Araba</p> <p>33/2013 FORU ARAU, PFEZ</p> <p>I. TITULUA ZERGAREN IZAERA ETA APLIKAZIO EREMUA</p> <p>2. ARTIKULUA. APLIKAZIO EREMU SUBJEKTIBOA.</p> <p>Foru arau honetan xedatutakoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergapeko hauei aplikatuko zaie:</p> <p>1. Zergadun gisa:</p> <p>a) Hurrengo artikuluan xedatu denarekin bat etorriz ohiko egoitza Araban duten pertsona fisikoei.</p> <p>Familia unitate bateko zergadun batzuen ohiko egoitza beste lurralde batean badago eta Zerga batera ordaintzea hautatzen badute, foru arau honetako 97. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Zerga Arabako Foru Aldundiari ordainduko diote likidazio oinarririk handiena daukan kidearen ohiko egoitza Arabako lurraldean egonez gero.</p> <p>Likidazio oinarririk handiena nork daukan kalkulatzeko, Arabako egoiliar ez diren zergadunentzako euren berariazko arautegia aplikatuko da.</p>

3. Xedapen arautzaileen aurkibidearen bilaketa eta bistaratzea:

3.1. Iragazkia eta bilaketa

Besterik adierazi ezean, egungo urtea hautatuko da.



Bilaketa-iragazkian datuak sartzeko unea da. Aukera hauek daukazazu:

- Lurralde historikoak: Bilaketa zein lurralde historikotan egin nahi den adieraz daiteke.

Bilaketarako parametro guztiak hautatu ondoren, "Bilatu" botoia klikatu beharko da. Bilaketa egiten ari dela adieraziko duen pantaila bistaratuko da. Amaitzen denean, sartu diren bilaketa-irizpideen arabera aurkitutako datuak jasoko dituen taula agertuko da pantailan.

3.2. Xedapen arautzaileen aurkibidearen taula

Bilaketa-datuak: [Hasiera](#)

Urtea: 2017

Zerga: PFEZ Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

Lurralde historikoak: Bizkaia Gipuzkoa Araba

Bilatu **Garbitu**

Foru Zerga Kodea


EUSKADIKO ZERGA-KOORDINAZIO-ORGANOA ÓRGANO DE COORDINACIÓN TRIBUTARIA DE EUSKADI

[Metodologia oharra](#) [Helburuak](#) [Laguntza](#)

■ Bizkaia ■ Gipuzkoa ■ Araba

Arautegi xedapenen aurkibidea			
Lurralde Historikoa	Urte iraunaldia	Arautegia	Argitalpena
Bizkaia	2014	47/2014 FORU DEKRETUA, PFEZ ARAUDIA.	(2014ko apirilaren 23ko BAO)
Gipuzkoa	2014	33/2014 FORU DEKRETUA, PFEZ ARAUDIA.	(2014ko urriaren 17ko GAO)
Araba	2014	40/2014 FORU DEKRETUA, PFEZ ARAUDIA.	(2014ko abuztuaren 8ko ALHAO)
Araba	2013	18/2013 FORU ARAUA	(2013ko ekainaren 17ko ALHAO)
Bizkaia	2014	1190/2014 FORU AGINDUA	(2014ko ekainaren 13ko BAO) (2014ko ekainaren 18ko BAO, akats zuzenketa)
Bizkaia	2014	2/2014 FORU ARAUA	(2014ko ekainaren 17ko BAO)
Bizkaia	2010	3308/2009 FORU AGINDUA	(2010eko urtarrilaren 11ko BAO)
Bizkaia	2013	715/2013 FORU AGINDUA	(2013ko apirilaren 16ko BAO)
Bizkaia	2014	2/2014 FORU DEKRETUA	(2014ko otsailaren 3ko BAO)
Bizkaia	2017	176/2016 FORU DEKRETUA	(2017ko urtarrilaren 2ko BAO)
Gipuzkoa	2009	4/2009 FORU ARAUA	(2009ko abenduaren 28ko GAO)
Gipuzkoa	2014	350/2014 FORU AGINDUA	(2014ko ekainaren 3ko GAO)
Gipuzkoa	2014	14/2014 FORU ARAUA	(2014ko abenduaren 12ko GAO)
Bizkaia	2017	2282/2016 FORU AGINDUA	(2017ko urtarrilaren 9ko BAO)
Bizkaia	2017	543/2017 FORU AGINDUA	(2017ko martxoaren 24ko BAO)
Bizkaia	2007	2996/2007 FORU AGINDUA	(2007ko abenduaren 10eko BAO)
Bizkaia	2014	636/2014 FORU AGINDUA	(2014ko martxoaren 24ko BAO)
Araba	2009	318/2009 FORU AGINDUA	(2009ko ekainaren 12ko ALHAO)
Bizkaia	2009	2/2009 FORU ARAUA	(2009ko abuztuaren 28ko BAO)

Bistaratze-pantailaren barruan kontuan hartu behar diren ezaugarriak:

 *Ikonoaren gainean klikatzean, leiho berri bat irekiko da. Bertan, hautatu den artikulua erakutsiko da, gero inprimatu ahalko den formatuarekin.*